

GRADU AMAIERAKO LANA

**NAGORNO KARABAJ:  
BETIEREKOTASUNERA  
KONDENATURIKO GATAZKA?**

**EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATE (UPV/EHU)**

**LETREN FAKULTATEA**

**HISTORIA GARAIKIDEA SAILA**

**HISTORIA GRADUA**

Egilea: **Danel Sagarduy Gonzalez**

Zuzendaria: **Victor Manuel Amado Castro**

Ikasturte akademikoa: **2020-2021**

## **Laburpena**

Lan honetan mendebaldeko gizarteak nahiko ahaztua duen eta bere inguruko ezjakintasuna duen Kaukasoko eremuaren errealitate geopolitikoaren azterketa bat egin da Armenia eta Azerbaijan barne biltzen dituen Nagorno Karabajeko gatazkan zentratuz. Gaur egungo egoera bere osotasunean ulertzeko baina, gatazka honen jatorri historikoaren azterketa bat egiten da zonalde honetako lehen populatzaileetatik SESBen disoluzioraino luzatzen dena, honen ondoren gaur egungo gatazkan zentratzeko. Honen baitan, izan dituen hiru inflexio puntu nagusien azalpen bat ematen da, azkenengoaren ondoren gaur egungo egoeraren analisi bat egiteko. Horretaz gain baina, gatazka modernoa hasi zenetik gaur egun arte bake prozesu bat lortzeko eta gaur egun arlo honetan indar gehien duten aktore nagusien azterketa bat egingo da, azkenik zonalde honetan interesak dituzten potentzia nagusien jarrera eta interesak zeintzuk diren azalduz.

## **Abstract**

This study intends to shed light onto the often forgotten and very little acknowledged geopolitical reality of the Caucasus region, where special importance will be given to the Nagorno Karabakh conflict among Armenia and Azerbaijan. In order to understand the current events in its whole context, it is important to study the historical origins, from the first inhabitants in this area until the dissolution of the USSR, pointing out the key events that have shaped the ongoing conflict. The following research includes the explanation of the three main inflection points that have taken place as a means to an analysis of today's reality. Furthermore, the various peace process attempts as well as the main actors who have been involved in them will be analysed, finally concluding with a mention of the main implicated powers and their interests in these territories.

## AURKIBIDEA:

1	Lan honen zergatiak eta helburuak.....	1
2	Metodologia, iturriak eta aztergaiaren egoera.....	1
3	Sarrera.....	2
4	Gatazkaren jatorria.....	3
4.1	<i>SESB sortu aurretik</i> .....	3
4.2	<i>SESB sortu ondoren</i> .....	5
5	Gaur egungo gatazkaren bilakaera.....	7
5.1	<i>1991-1994 arteko gerra irekia</i> .....	9
5.2	<i>2016ko apirileko krisia</i> .....	12
5.3	<i>2020ko azeriar eraso</i> .....	16
6	Egoera gaur egun.....	18
7	Bakea lortzea posible al da?.....	21
8	Atzerriko potentzien jarrera eta interesak.....	23
8.1	<i>Errusiar Federazioa</i> .....	23
8.2	<i>Turkia</i> .....	24
8.3	<i>Beste potentzia batzuk</i> .....	27
9	Ondorioak.....	28
10	Gatazkaren kronologia.....	30
11	Iturriak.....	31
11.1	<i>Bibliografia</i> .....	31
11.2	<i>Webgrafia</i> .....	31
11.3	<i>Hitzaldiak</i> .....	34

# 1 Lan honen zergatiak eta helburuak

Lan hau Europako eta orokorrean mendebaldeko gizarteak hain ahaztua duen eta berari buruz hain gutxi dakien Kaukaso eremuko errealitate geopolitikoaren inguruko jakintza zabaltzeko egin da. Horretarako aurreko urtearen amaieran berpiztu zen Nagorno Karabajeko gatazkan zentratuko da, bere helburua honen bilakaerak zonalde honetan eragin dituen aldaketak zeintzuk izan diren ulertzea izango delarik, gatazkaren jatorritik gaur egunerainoko azterketa bat eginez.

## 2 Metodologia, iturriak eta aztergaiaren egoera

Lan hau burutzeko erabilitako metodologia, orain arte gatazka honen inguruan argitaratutako lanen azterketa ahalik eta iturri eguneratueneekin uztartzea izan da. Iturriei dagokionez, bizi dugun Covid-19 pandemia dela eta ez da posible izan fisikoki lanik eskuratzea eta bitartekoen gehiengoak internet bidez eskuratu dira. Egunkari desberdinak (BBC eta El Pais bereziki), zenbait liburu (*Black Garden* bereziki), zenbait erakunderen web orriak (OSCE eta UN Pacemakers esaterako) eta zenbait aldizkaritako artikulu erabili dira (Priego Morenoren “*Nagorno-Karabag: ¿Disputa territorial o energética?*” edo Alessoren “*Post Guerra Fría inconclusa: el caso de Nagorno Karabaj. El conflicto armenio-azerí y posición e intereses de Rusia, Turquía e Irán en la región.*”), bereziki baliogarriak egin direlarik Espainiako Defentsa Ministeritzak argitaratutako “*panorama geopolítico de los conflictos*” txostenak eta Instituto Español de Estudios Estratégicos-ek argitaratutako lanak. Oso baliagarriak izan dira era berean OSCERen bitartez eskuratutako bileren txostenez osaturiko jatorrizko dokumentuak. Hala ere esan beharra dago jorratzeko gai zaila dela, gaur egun gertatzen ari den gatazka den heinean oso gai dinamikoa delako, bereziki azken hilabete hauetan. Hau dela eta, zaila da lan eguneratuak aurkitzea behin eta berriro argitaratzen direlako berriak. Bestalde aipatu beharra dago, hizkuntzari dagokionez gai honen inguruan ia ez dagoela lanik euskaraz eginik, eta gehienak gazteleraz eta ingeleraz idatziak daudela, eta hauek izan dira lan honetan gehien erabili direnak.

### 3 Sarrera

Lan honetan aztergai izango den eremua, Nagorno Karabaj, Kaukasoan dago kokatuta Armenia eta Azerbaijanen artean hain zuzen ere, baina gatazka hau ulertzeko zonalde honen berezitasunak ere ulertu behar dira. Kaukasoan, ekialdeko Europaren eta mendebaldeko Asiaren arteko muga dira, Ura lekin batera bi kontinenteak banatzen dituen muga natural bezala kontsideratua izan dena. Bere barnean bi zonalde daudela esan daiteke, alde batetik iparraldeko Kaukasoan, zeinean Errusiaren parte diren Dagestan, Txetxenia, Ingusetia, Ipar Osetia, Kabardino-Balkaria, Karachai eta Adigea errepublika autonomoak aurkitzen diren. Hegoaldeko Kaukasoan edo Transkaukasian berriz, hiru herrialde aurkitzen dira Georgia, Armenia eta Azerbaijan, hirurek lortu zutelarik independentzia 1991an SESBetik banatu ondoren.

Zonalde honen ezaugarri edo berezitasun handiena baina bertan bizi diren herri desberdinen arteko aniztasuna da. Oso handia ez den eremu honetan etnia eta erlijio desberdinez osaturiko mosaiko konplexu bat dago, zeinean hiru talde etniko-linguistiko nagusi (indoeuroparra, kaukasiarra eta altaikoa) eta bi erlijio nagusi aurkitzen diren (kristau/ortodoxoa eta islamiarra). Gauza da, munduko beste eskualde gehienetan gertatzen ez den bezala hauek zonaldeka banatu eta elkartu ordez erabat nahasturik daudela (Ruiz Gonzalez, 2011: 90).



**1. Irudia:** Kaukasoan aurkitzen diren etnia eta erlijio desberdinek osatzen duten mosaikoa. Iturria: Ruiz Gonzalez, 2011: 90

Zonaldearen egitura berezi hau dela eta bi kontinenteren arteko muga izateak, inperio garrantzitsuen arteko muga izatearekin batera, gerra ugari pairatu dituen lurraldea izatera kondenatu du Kaukaso osoa, eta arrazoi batzuk edo beste batzuk direla eta, horrela izan zen 20ko hamarkadan SESBek egonkortu eta finkatzea lortu zuen arte. Honi esker bake fase bat bizi izan zuen lurralde honek, baina iraganetik sorturiko gatazkek bizirik jarraitzen zuten loaldi egoeran bazen ere. Hori argi eta garbi erakutsi zuten 80ko hamarkadan SESBen ahulezia zantzuak antzematean sortutako nazionalismo mugimenduekin batera berpiztutako gatazkek, hauen artean Nagorno Karabajekoak. Handik hona, eta 3 inflexio puntu nagusi pasa ostean gaur egun, 2020ko azaroan sinatutako bake akordioa betetze bidean aurkitzen da egoera, baina honek ez du esan nahi gatazka konponduta dagoenik.

## 4 Gatazkaren jatorria

Gaur egun Artsajeko Errepublika<sup>1</sup> aurkitzen den Kaukasoko eremua, historikoki Nagorno Karabaj bezala ezagutua, antzina-antzinatik izan da gatazka asko bizi izan dituen lurraldea eta gaur egun ere horrela izaten jarraitzen du. 2020ko irailean, Armenia eta Azerbaijan berriro ere borrokan hasi dira lurralde honen kontrolagatik hainbat urtez bizitako nolabaiteko lasaitasun egoera bati amaiera emanaz. Gaur egungo gatazka ulertzeko baina ezinbestekoa da honen jatorria ondo ezagutzea.

### 4.1 SESB sortu aurretik

Esan dugun bezala, Nagorno Karabaj-eko eremuak mila urte baino gehiagoko historia du, baina bertan kokatu zen lehen giza taldea zein zen argi ez dagoenez, honen inguruko bi korrante nagusi sortu dira, bata Armeniarren kontakizunaren aldekoa eta bestea berriz azeriarren diskurtsoaren aldekoa (Setien, 2020: 4). Armeniarren arabera, k.a IX-VI. mendeen artean lurralde hau Urartuko erresumaren parte izan zen, gaur egungo Turkia, Armenia eta Iran inguruko zonaldean sortu zena, Hititar Inperioa desagertu ondoren. K.a 189- k.o 387 urteen artean berriz, Armeniar Erresumaren parte

---

<sup>1</sup> 2017ko otsailaren 20an eginiko erreferendumaren bitartez konstituzio berri bat onartu eta Artsajeko errepublika deitzera pasa zen, 1991an independentzia aldarrikatu zuen lurralde hau.

izatera pasa zela esaten dute armeniarrek, zeinak Albano Kaukasoar Erresumarekin muga egiten zuen Kura ibaian. Hala ere, 387an Nagorno Karabaj Persiarren esku geratu zen Bizantziar-sasandar gerren ondoren, eta hauek Albano Kaukasoar Erresumari eman zioten lurralde honen gaineko jabetza gerra horietan emandako laguntzaren ordainetan.

Azeriarrek berriz bestelako kontakizun bat egiten dute garai honen inguruan. Beraien ustez gezurra da armeniak Nagorno Karabajeko eremuan aurkitzen zirela kristo aurreko garaietan, eta defendatzen dute k.a IV. mendetik k.o VIII. mendera bitartean Kaukaso inguruko ekialde eta erdialde osoaren gaineko kontrola Albano Kaukasoar Erresumak zuela, Nagorno Karabaj aurkitzen zen lurraldea barne. K.o VIII. mendearen aurreko historiaren bi irakurketa hauek kontuan harturik, argi dagoena da hurrengo mendeetan zehar ere konkistaz konkista esku batetik bestera pasa zela lurralde honen gaineko kontrola. Horietariko lehenengoa Seljukturak XI. mendean gauzatutakoa izan zen, zeinak gaur egungo Turkia, Azerbaijan eta Turkemistaneko biztanleen benetako arbasotzat hartzen diren. 1230ean berriz Mongolen Inperioa izan zen lurraldeaz jabetu zena. XVIII. mendean zehar Nagorno Karabajeko eremua, Kaukasoko beste lurralde asko bezala, Pertsiar eta Otomandar inperioen arteko gudu zelai izan zen, azkenean Pertsiarren esku geratu zelarik.

Mende bat pasa baino lehen baina beste aldaketa bat eman zen, kasu honetan XIX. mende hasierako Errusiar Inperioaren eta Pertsiar Inperioaren arteko gerragatik, bertan sinatutako 1813ko Gulistaneko eta 1828ko Turkmenchayko itunei esker, Nagorno Karabaj eta Erevan hurrenez hurren Errusiar Inperioaren parte izatera pasa baitziren. Honi esker, hainbeste menderen ondoren musulmanen menpe egondako eta bertako populazioa kristaua zen Armenia eta Nagorno Karabaj Errusia kristauaren parte izatera pasa ziren. Hala ere, horrek ez zuen armeniar etnia etorkizunean jasoko zituen jarraipen desberdinetatik salbatuko, zeinetan garrantzitsuena 1915eko genozidioa izan zen. Kasu honetan hilketak armeniar lurretatik kanpo gertatu ziren, Otomandar Inperioan hain zuzen ere, baina jazarpena jaso zutenak armeniak izan ziren.

Historiako pasarte ilun hau I. Mundu Gerraren testuinguruan ulertu behar dugu, zeinean Inperio Otomandarrak Alemaniar eta Haustro-hungariar Inperioekin batera erdialdeko potentziak osatu zituzten, beste bandoa osatzen zuten eta aliatu izena hartu zuten Frantzia, Erresuma Batua eta Errusiar Inperioari aurre egiteko. Testuinguru beliko horretan, Otomandar Inperioak bere lurraldean bizi ziren armeniak erditik kendu nahi

izan zituen, beraien ustez hauek Errusiar Inperioarekin batera bere aurka borrokatzeko prest baitzeuden. Premisa hori jarraituz etnia armeniarrek jasan zuen jarraipenak hainbeste hildako eragin zituen, ezen XX. mendeko lehen genozidio moderno bezala hartzen den. Zuzenean eraildako eta baldintza penagarrietan martxa behartuen bidez eginiko leku aldatzeen ondorioz milioi eta erdi armeniar hil zituztela kalkulatu da gutxi gora behera.



**2. Irudia:** Bi soldadu eraildako hainbat armeniarren gorpuzkien aurrean. Iturria: BBC: <https://www.bbc.com/mundo/noticias-internacional-56862080>

Hainbesterainokoa izan zen genozidio honen eragina, gaur egun oraindik ere Otomandar Inperioaren ondorengoa den Turkia eta Armeniaren arteko harremanak baldintzatzen jarraitzen duela, eta zenbait kasutan Nagorno Karabajeko gatazkaren modernoaren jatorri bezala ere kontsideratua izan da (Gonzalez, 2021). Turkia eta Armeniaren arteko gaur egungo gatazka hori, lehenengoak genozidioa izan ez zela argudiatzen duelako ematen da, eta ez da herrialde bakarra, hainbat herrialde baitaude mundu osoan zehar hilketa hori ez dutela genozidio bezala hartzen. Oso esanguratsua da esaterako, Estatu Batuak izan direla hau genozidio bezala izendatu duen azken herrialdea<sup>2</sup> (BBC, 2021eko apirilaren 24a).

#### 4.2 SESB sortu ondoren

1917ko Errusiar iraultzak baina, aldaketa handiko epe bat labur bat eragin zuen 1923ra artekoa, zeinean Sobietar Errepublika Sozialisten Batasuna (SESB) indartu arte

---

<sup>2</sup> Hemen artikulua osoa: <https://www.bbc.com/mundo/noticias-internacional-56862080>



ez zen egonkortasunik lortu. Iraultzaren ondoren Errusiak bizi zuen gerra zibila aprobetxatuz, Transkaukasia eremua osatzen zuten Armenia, Georgia eta Azerbaijanek Errusia tsaristatik banatu eta Transkaukasiako Errepublika Demokratiko Federala sortu zuten 1918an (Alesso, 2019: 25). Errepublika honek hilabete gutxi batzuk bakarrik bizirautea lortu baldin bazuen ere, bere disoluzioaren ondorioz banatutako aurreko hiru Errepublikak beraien errepublika demokratikoak sortu zituzten, gatazka lurraldekoi batzuen sorrera ekarriz, besteak beste Armenia eta Azerbaijaneko Errepublika Demokratikoen arteko Karabaj, Najichevan eta Zangezurren gaineko kontrolaren ingurukoak.

Garai honetan kokatzen da beraz Nagorno Karabajen bizi diren armeniarren eta Azerbaijanen arteko eztabaida (Mktichyan, 2009: 434). Aurreko federazio horretatik 1918an sortutako errepubliken arteko borroka 1919ko urtarrilaren 15ean hasi zen Azerbaijanek Nagorno Karabajeko lurraldea berea zela aldarrikatu zuenean. Honi erantzuteko, Shushin bilduta zegoen Karabajeko armeniarren Asanblada Orokorrak erantzun irmoa eman zuen esanez ez zuela Azerbaijanek esandako onartzen eta lurraldea Armeniaren parte zela. Honek, ekainaren 4 eta 5ean Shushi hiriaren inguruan bi bandoen arteko enfrentamenduak gertatzea eragin zuen, baina armeniarrek galtzen ari zirela ikusirik armada azeriarrek ezarritako baldintzak onartu eta Armeniar Kontseilu Nazionaleko kideek hiria utzi behar izan zuten su eten bat sinatu ondoren. Hala ere, su etenak ez zuen asko iraun eta ekainaren erdialdean azeriarrek Shushi hiriaren kanpoaldeko Khaibalikend herri armeniarra suntsitu zuten, bertako 600 biztanle erailaz. Egoera ikusirik, Karabajeko armeniarren zazpigarren kongresuak 1919ko abuztuaren 22an sinatutako akordio batekin erabaki zuen momentuz Nagorno Karabajeko lurraldea Azerbaijaneko Errepublikaren eremuaren barruan ustea, Pariseko bake konferentzian erabakiko zenaren esperoan.

Azeriarrek baina ez zituzten plan berdinak eta lurraldea lehen baino lehen anexionatu nahi zuen horretarako erabilitako estrategia bertan bizi ziren armeniarrek hiltzea izan zelarik, momentu gorena 1920ko martxoa izan zelarik, non Shushiko sarraskian 30.000 biztanle armeniar hil zituzten. Hori dela eta, Karabajeko armeniarren bederatzigarren Asanbladak Azerbaijanekin sinatutako akordioa bertan behera ustea erabaki zuten eta Karabajen Armeniaren anexioa aldarrikatu zuten. Kalkulatzen da Turkiarren eta Azeriaren artean, Nagorno Karabajetik armeniarrek ezabatzeko zuten planaren ondorioz bertan bizi ziren armeniarren %20 hil zituztela (Mktichyan, 2009:

435). Armeniarrek hainbeste esperantza jarriak zituzten Pariseko bake konferentziak baina ez zuen beraien aldeko neurririk hartu, Europa Mendebaldeko herrialdeek Kaspiar itsasoan zituzten interesak defendatzeko Nagorno Karabaj Azerbaijanen baitan geratzea erabaki zutelako (Priego Moreno, 2003: 3). Moskuk hau ikusirik eta gerra zibilean zehar Azerbaijan armada zuriaren gotorleku izaten ari zela ikusirik zonaldea bere kontrolpean jartzeko apustua egin zuen eta armeniarren laguntzarekin armada gorriak Baku konkistatu zuen 1920ko apirilean.

Pentsa zitekeen eskaintako laguntzagatik Moskuk Nagorno Karabaj Armeniaren esku utziko zuela, baina geopolitika kontuak direla eta ez zen horrela izan. Leninek ez zuenez Turkiarekin arazorik izan nahi, 1921eko martxoaren 21ean Errusia eta Turkiaren arteko akordio batek erabaki zuen Nagorno Karabaj eta Najichevan lurraldeak Azerbaijanen eskuetan egotera pasako zirela (Mktichyan, 2009: 435). Gainera, 1923ko uztailaren 7an Azerbaijaneko Errepublika Sozialistako komite iraultzaileak Karabaj Armeniatik erabat banatzeko hautua egin zuen horretarako Nagorno Karabajek berak bakarrik osaturiko *oblast*<sup>3</sup> edo eskualde autonomo bat sortuz, baina Armeniarekin lotzen zituen Karvachar eta Lachin lurraldeak bertatik kanpo utziz. Bai Nagorno Karabajek eta bai Armeniak periodikoki Moskuri egoera aztertzeke eskariak egin bazizkioten ere, ez zen inolako aldaketarik egin eta SESB indartuz joan zen heinean gatazka lozorro egoera baten sartu zen. 1936an Transkaukasiako Errepublika Sozialisten Federazio Sobietarra hura osatzen zuten errepubliketan banatu zenean ere ez zen egoera aldatu, nahiz eta Nagorno Karabajeko eremuak azeriarren kontrolean mantendu.

## 5 Gaur egungo gatazkaren bilakaera

SESBen finkatzearekin beraz, Nagorno Karabajen inguruko Armeniarren eta Azeriarren gatazka hibernazio egoera batean sartu zen sobietar batasuna indartsu mantendu zen bitartean ez zelarik berriro ere berpizteko keinu handirik egon. 1980ko hamarkadaren bigarren erdialdean baina gauzak aldatzen hasi ziren ordura arteko SESBek izan zuen egonkortasuna galtzerakoan eta 1985ean *Perestroika*<sup>4</sup> eta *Glasnost*<sup>5</sup>

---

<sup>3</sup> SESB-eko ohiko banaketa administratiboa, probintziari pareka dakiokena

<sup>4</sup> Enpresa askearen ideia batzuk barneratzen zituen SESBen ekonomiaren berrestrukturazirako proiektua

<sup>5</sup> Preso politiko batzuen askatzearen, kontrolatu eta neurtutako nolabaiteko adierazpen askatasunaren eta komunikazio bideen gardentasun handiagoaren bidez eman zen SESBen sistema politikoaren neurri bateko askatasuna

politikei esker (Setien, 2020: 6) mugimendu nazionalistek gorakada handia izan zutelako. Zehatzago esanda, gaur egun oraindik ere dirauen Nagorno Karabajeko gatazka “moderno” 1988ko otsailean hasi zen (Mkrtichyan, 2009: 436). Azken hilabeteetan bizi zen egoera nahasia aprobetxatuz, non arrazoi nazionalisten aldeko protestak ugartu ziren, Nagorno Karabajeko sobietak 1988ko otsailaren 20an Azerbaijaneko Sobietar Errepublika Sozialistatik ateratzeko eskaera formala egin zion Moskuri, Armeniako Sobietar Errepublika Sozialistan sartzeko helburu argiarekin. Honek baina egoera asko berotzea eragin zuen, eta egun horretako liskarrak hainbestearinokoak izan ziren ezen egun horretan bertan Nagorno Karabajeko armeniarrek bi azeriar hil zituzten.

Klima bero horretan gainera Moskuk hartutako jarrera anbiguoak egoera okertzea besterik ez zuen egin. Azerbaijanek sentitzen zuen diskriminatu egiten zutela Moskuko erabakiguneetan armeniar ordezkari gehiago zeudelako eta gainera Gorbachoven aholkulariak ere armeniarrek zirelako. Era berean, Armeniak uste zuen Moskuk ez zutela bere eskariak kontuan hartzen Nagorno Karabaj Armeniaren barruan sartzeko eginiko 80.000 firmako bilketa ez zelako kontuan hartu. Testuinguru honetan beraz, eta otsailaren 20an egondako hilketak oraindik azeriarren buruan oso fresko zeudela, pisu handiko lehen gertakari odoltsua eman zela esan daiteke, Sumgaiteko pogromoa, non azeriarrek osaturiko taldeek Azerbaijaneko hiri honetan bizitako armeniarren aurkako erasoak burutu zituzten, guztira 31 pertsona hil eta 300 inguru zaurituz, gehienak armeniarrek izan zirelarik (Priego Moreno, 2003: 5).

1988 eta 1989 urteetan zehar egoerak berdin antzera jarraitu zuen tentsio puntu nabarmenduago batzuekin. Nagorno Karabajen bizi ziren armeniar askok esaterako, familia azeriarren etxeak erretzeari ekin zioten 1988ko azken hilabeteetan eta urte luzez iraungo zuen exodo bat hasi zen, denborarekin lurralde honetako biztanleria are ehuneko handiagoan armeniarra izatea eragin duena. Hala ere izan ziren tentsio momentuak arlo instituzionalari dagokionean ere, esaterako 1988ko uztailaren 18an SESBeko kontseilu gorenak konstituzioaren 78. Artikuluan oinarrituta Nagorno Karabaj Azerbaijanen barruan ustea erabaki zuenean, esanez konstituzioaren arabera ezin zela lurraldetasun aldaketarik eman Errepublika Sozialisten arteko onarpenik ez zegoen bitartean (Mkrtichyan, 2009: 436).

Hala ere 1990eko urtarrilean gatazka beste maila batera pasa zen Bakuko urtarril beltza bezala ezagutzen denaren ondoren. Urte horretako urtarrilaren 13 eta 14an bi bandoen arteko borroka gogorrak egon ziren Baku, Stepanakert eta Najichevanen, honek Moskun urduritasun handia piztu zuelarik. Egoerari irtenbiderik aurkitu ezinean zeudela ikusita SESBeko armada Bakura bidaltzea erabaki zen alde azeriarra erreprimitzeko ideiarekin. 17.000 soldadu eta hainbat tanke bidali zituzten Azerbaijaneko hiriburura eta 124 hildako eta 700 zauritu baino gehiago eragin zituzten armada gorriko soldaduek.

Gertakari hau oso garrantzitsua izan zen Azerbaijanentzat argi gelditu zitzaiolako zein izango zen Moskuk gatazka honetan izango zuen jarrera: Armeniaren aldeko babes osoa eta Azerbaijanentzako promesa faltsuak. Gainera, argitara atera zen Moskuk Armenia gerrarako materialez hornitzen zuela, gaur egun oraindik ere dirauen harremana izanik, eta baita hainbat Armeniarrek parte hartu zutela Bakuko gertakarietan eta ondorengo errepresioan (Priego Moreno, 2003: 8). Hemendik hasita eta gaur egunera arte, oraindik ere irtenbiderik aurkitu ez duen gatazka honek 3 inflexio puntu nagusi izan ditu hurrengo puntuetan sakonago azalduko direnak: 1) 1991-1994 artean emango den Armenia eta Azerbaijan herrialde sortu berrien arteko gerra irekia; 2) 2016ko apirileko krisia; 3) 2020ko eraso azeriarra.

### *5.1 1991-1994 arteko gerra irekia*

Armenia eta Azerbaijanen arteko gerra armatu irekiaren hasiera 1991ko udaberrian koka dezakegu Armada Gorriak OMON<sup>6</sup>ekin batera gauzatutako “*Operation Ring*” delakoaren baitan (Waal, 2003: 120). Ezkutuko operazio militar honen helburua, ofizialki Nagorno Karabejeko biztanleen pasaporteen eta bizileku baimenen berrikuspen bat egitea besterik ez zen izan. Hala ere, bertan erakutsitako armeniar jatorriko biztanleen aurkako indarkeriak erakutsi zuen, Mosku eta Bakuren artean antolatutako operazio honen benetako helburua Armenia edo Nagorno Karabajen autodefentsarako talde armatuen sorrera galarazteko plan bat izan zela (Priego Moreno, 2003: 11). SESBen bat-bateko Azerbaijanen aldeko postura hau ulertzeko kontuan hartu beharra

---

<sup>6</sup> SESBen eta gaur egun Errusian Guardia Nazionaleko unitate bereziei ematen zaien izena, bere nomenklaturak “aparteko helburuetarako unitate mobila” esan nahi duelarik.

dago azken urteetan Europa mendebaldeko zenbait konpainiak Azerbaijaneko petrolioaren gaineko interesa erakutsi zutela eta Errusiak ez zuela hau begi honez ikusi. Horregatik, Kaukasoko zonalde honetan ezegonkortasuna edo gatazka militarrek egotea komeni zitzaion honek mendebaldeko enpresa kapitalistak aldenduko zituelako.

1991ko abuztuaren 19an baina SESBen desintegrazioan eragin handia izan zuen gertakari bat eman zen, hiru egunez luzatu zen estatu kolpe bat. Honek, azken urteetan errepublika desberdinetan indarra hartuz joan ziren ideia nazionalisten gorakada bat ekarri zuen eta ez zen denbora asko pasa hauetariko asko herrialde independente bezala aitortzen hasi arte. Azerbaijanek esaterako abuztuaren 30ean egin zuen bere independentzia aitortpena<sup>7</sup> (El Pais, 1991ko abuztuaren 31) eta Armeniak berriz irailaren 22an<sup>8</sup> (Hiatt, 1991ko irailaren 23a).

Herrialde berri hauen sorrerak, Armenia eta Azerbaijanen arteko gatazka handitu zuen eta hau ikusirik Mosku berarentzako komenigarria izan zitekeen irtenbide baten bila hasi zen. Horren baitan eman zen 1991ko irailaren 24ko Zheleznovodoskeko bake saiakera, non Boris Yeltsin (Errusiar Federazioa) eta Nursultán Nazarbayevek (Kazakhstan) su eten bat proposatu zuten irtenbide baketsu bat bilatzen saiatzeko (Priego Morena, 2003: 12). Bertan puntu batzuk erabaki baldin bazituzten ere ez zen bakea lortu, Azaroaren 26an Azerbaijanek Nagorno Karabaji bere autonomia kendu eta probintzia normal bat bihurtzea erabaki zuelako, bere esanetan ez baitzen bitartekarien neutraltasunaz fidatzen. Honek bake prozesuaren amaiera ekarri zuen, bi herrialdeen arteko gerrari jarraipena emanez (Waal, 2003: 162).

Berriro ere gerraren aldeko apustua eginez azeriarrek 1991 amaiera eta 1992 hasieran ofentsiba bat gauzatu zuen, Nagorno Karabajekin muga egiten zuten ekialde eta hegoaldean kokatutako Agdam eta Karintak hiriak erasotuz. Mugimendu militar honi esker 1992ko udarako azeriarrek Karabajeko lurralde osoaren erdia bere eskuetan zuten (Mkrtichyan, 2009: 437), nahiz eta honek ez zuen asko iraun. Karabajeko defentsaz arduratzen ziren indar armeniarrek horrelako eraso bat espero zuten eta 1992an zehar eman zen kontraeraso bat gauzatu zuten indar Errusiarren laguntzarekin, zeina oso garrantzitsua izan zen gerraren bilakaeran, honi esker armeniarrek azeriarrek

---

<sup>7</sup> Hemen artikulua osoa: [https://elpais.com/diario/1991/08/31/internacional/683589605\\_850215.html](https://elpais.com/diario/1991/08/31/internacional/683589605_850215.html)

<sup>8</sup> Hemen artikulua osoa: <https://www.washingtonpost.com/archive/politics/1991/09/23/armenians-azerbajjanis-agree-to-talks-on-disputed-enclave/127a6164-9b30-4270-bde3-368c25dce194/>

Nagorno Karabajen zituzten gotorleku garrantzitsuenak suntsitu baitzituzten (Priego Moreno, 2003, 14).

Armeniarren kontraerasoak bi helburu estrategiko nagusi zituen azeriarrak Nagorko Karabajetik kanporatzeaz gain: 1) Armenia eta Nagorno Karabaj lotuko zituen Lachineko korridorea zabaltzea eta 2) Nagorno Karabaj inguratuko zuen lur eremu azeriarrez osaturiko segurtasun gerriko bat eratzea. 1993rako armeniarrek lortu zuten beraien helburuak betetzea eta honi esker Nagorno Karabajek jada ez zuen Azerbaijanekin mugarik egiten, berau inguratzen zuten Lachin, Kelbajar, Aghdam, Gubadly, Fizuli, Jabrail eta Zagelan hiriak aurkitzen ziren eskualde azeriarrak Armeniaren esku geratu zirelako (Priego Moreno, 2003, 25).



Egoera delikatua zen batez ere Azerbaijanentzat bakea sinatu ezean lurralde gehiago galtzeko aukera zutela ikusita irtenbide bat bilatu beharrean aurkitu zirelako. Testuinguru horretan batu ziren Estatu Independenteen Erkidegoko<sup>9</sup> (EIE) eta gatazkan murgildutako aldean ordezkariak maiatzaren 4-5ean Bishkek-en, Kirgizistaneko hiriburuan (Waal, 2003: 238). Bertan Bishkek-eko Protokoloa sinatu zen eta hainbat konpromiso hartu zituzten Armeniak eta Azerbaijanek: Maiatzak 8-9 arteko gauerdian su etena egitea, ekintza militarra ez berrartzeko konpromisoa, okupatutako lurretatik

<sup>9</sup> Ingeleses Commonwealth of Independent States (CIS), SESBen parte izandako hainbat herrialdek osatutako erakundea

tropak kanporatu eta komunikazioa berrezartzea eta errefuxiatuen itzulera izan ziren garrantzitsuenak<sup>10</sup> (OSCE, 1994ko maiatzaren 4-5). Hala ere ez ziren bertan hartutako konpromisoak bete eta gatazka maila baxuagoan izan bazen ere bere horretan jarraitu zuen. Hainbat urtez luzatu zen Armenia eta Azerbaijan arteko gatazka honek azkenean 600.000 pertsona ingururen lekualdatzea eragin zuen eta su etena baino lehen bizia galdu zuten pertsonen kopurua 15.000 eta 25.000 ingurukoa dela esan daiteke (Ruiz Gonzalez, 2011: 93).

## 5.2 2016ko apirileko krisia

1994an bi herrialdeek su etena sinatu zuten arren, inoiz ere ez da hau bere osotasunean bete, bai batak eta bai besteak hainbat aldiz apurtu baitute bake sinatze hori eraso desberdinen bitartez. Hori horrela izanik, 2016ko apirilaren 2 eta 5aren artean eman ziren konfrontamenduak esperotako gertakariak izan ziren, oraindik ere konpondu gabeko baina izoztuta jarraitzen zuen gatazkak berriro ere pizteko aukera handia baitzuen. Armenia eta Azerbaijanek duten beraien arteko beste pasarte beliko hau, lau eguneko gerra bezala izendatua izan dena (Alesso, 2019: 27), hainbat faktoreren ondorioa izan zela esan daiteke. Hauen artean aurki daitezke esaterako gerraren amaieran sinatutako su etenaren narriadura, Azerbaijanek izan duen hazkunde ekonomikoak baldintzatu duen honen indartze militarra, 1994tik geroztik Nagorno Karabajek bizi duen *de facto* independentzia egoera, Armenia eta Errusiaren artean berrindartutako segurtasun harremanak edo Minsk-eko prozesuaren blokeo egoera (Broers, 2016: 5)

1994a geroztik, liskar txikiak eman dira kontrol lerro osoan zehar (hemendik aurrera LOC<sup>11</sup>), bereziki 2014a geroztik. Armeniarentzat egoera guztiz komodoa zen bitartean, Nagorno Karabaj eta baita hau inguratzen zituen 7 lurralde azeriarren gaineko kontrolarekin, Azerbaijanentzat gerra ez zegoen bukatuta, eta azken urteetan lorturiko irabazi ekonomiko handiei esker garatutako indartze militarrek lagunduta, galdutako lurraldeak berreskuratzeko ideia indarra hartuz joan zen (Priego Moreno, 2016: 5). Hidrokarburoei esker Azerbaijanek duela zenbait urtetatik bizi duen hazkunde

---

<sup>10</sup> Hemen dokumentu ofiziala: <https://peacemaker.un.org/armeniaazerbaijan-bishkekprotocol94>

<sup>11</sup> LOC singlak ingeleseko *Line of Contact* terminotik datoz

ekonomiko jarraitu honek, nahiz eta azken urteotako petrolioaren prezioaren jaitsierak apur bat gelditu duen, Armeniarekin alderatuta abantaila oso handia ematen dio, herrialde bakoitzak defentsan inbertitu dezakeen kopurua oso desberdina izatea eragiten baitu. Hurrengo koadroan esaterako argi eta garbi ikusten da 2016ko lau eguneko gerra piztu aurretiko urteetan zein izan den herrialde bakoitzak egin duen inbertsioa defentsan:

	2013	2014	2015	2016 (estimazioa)
Armenia	409	415	482	415
Azerbaijan	3.700	2.700	1.700	1.700

**4. Irudia:** Armenia eta Azerbaijanen aurrekontua Defentsan (milioi dolarretan). Iturria: Priego Moreno, 2016: 6 (Egilearena euskaratua)


Honi esker Azerbaijanek puntako material militar ugari eskuratzeko ahalmena izan du, kontraesankorra badirudi ere bere saltzaile nagusia Errusia delarik, Armeniaren aliatu nagusia gatazka honetan, nahiz eta azken urteetan Israel ere hainbat material saltzen hasi zaion, dronak bereziki. Honetaz gain, kontuan hartu beharra dago herrialde honek Turkiarekin duen harreman estuari esker, bere armadak turkiarrarekin entrenamenduak gauzatzeko aukera izan duela, honi esker NATO<sup>12</sup> koordinatutako formakuntzetan parte hartu ahal izan dutelarik (Alesso, 2019: 27). Guzti honek armada azeriarra armeniarra baino askoz ere formatuago eta modernoagoa izatea eragin du.

Gaitasun militarren hazkundeaz gain, negoziaketen marginalizazioak ere eragina izan zuen borroka berri hauen piztean. 2007a geroztik bi herrialdeak OSCerekin batera Madrilgo printzipioak bezala ezagutzen den akordioan lanean ibili diren arren, aurrerago azalduko dena, herrialde bakoitzak bertan ezartzen diren puntuak gauzatzeko ordenari dagokionez dituzten interes kontrajarriak direla eta ezerezean geratu da honen exekuzioa. Hau jakinda beraz 2016ko apirilaren 2 eta 5 bitartean emandako borroketan zentratuko gara. 90eko hamarkadako gerran gertatu ez zen bezala, kasu honetan enfrentamenduak LOCera mugatu ziren, zeinak Armeniak okupaturiko lur azeriarren eta Azerbaijan arteko mugan dagoen lerro gogorki gotortua den 20.000 soldadu inguruz defendatua.

<sup>12</sup> NATO siglak ingeleseko *North Atlantic Treaty Organization* erakundearenak dira (gaztelaraz OTAN)



Datuak ikusiz eta azeriarrek irabazi zuten gaitasun eta indar militarra kontuan harturik espero zitekeen garaipen azkar bat lortuko zutela, baina karabajiarrek eginiko defentsa eraginkorrari esker azeriarrek lorturiko arrakasta askoz ere txikiago eta garestiagoa izan zen. Erasoak apirilaren 1eko gauean zehar hasi ziren nahiz eta oraindik ere ez dagoen argi norik hasi zituen, batak besteari leporatzen baitio ekintza hori. Dena den Azerbaijanek esan zuen gertakari horien aurrean kontra eraso bat egitera behartua ikusi zela eta hainbat herri bereganatu zituen, beraien artean Lale Tepe, Seysulan eta Talish, nahiz eta hurrengo egunerako armeniarrek azken hau berreskuratu zuten.



Momentu gogorrena baina apirilaren 4a izan zen, dudarik gabe besteak baino askoz bortizkeria gehiago ikusi baitzen egun horretan, eta horren adibide argiena da azeriarrek hil zituzten hainbat soldaduren artean hiru teniente eta koronel armeniar bat aurkitzea (Priego Moreno, 2016: 9). Azeriarrek baina gehiago nahi zuten eta ordura arte irabazitako lur eremua ziurtatzeko Nagorno Karabajeko hiriburua den Stepanakerteraino helduko zirela esan zuten (Taylor, 2016). Borrokak hartu zuen hedadura ikusirik, Moskuk bertan esku hartu eta bi aldeak negoziaketa mahai batera deitu zituen, egoerak hazten jarrai ez zezan, eta proposamen horri esker armeniar eta azeriar armaden buruak ziren Yuri Khachaturov eta Necmeddin Sadyghov batu ziren (Broers, 2016: 12).

Errusiar bitartekaritzari esker lorturiko bilera honek, apirilaren 5ean lau eguneko gerraren amaiera ekarri zuen nahiz eta LOCean zehar borroka txikiak gertatzen jarraitu zuten.

Baina, zergatik izan zen 2016ko gertakizun hau desberdina, 1994tik ordura arte enfrentamenduek jarraitu baldin bazuten nahiz eta maila txikiagoan izan? Bada 3 arrazoi daude galdera horren erantzuna bilatzeko: borrokaren eskala, lurralde kontrolaren aldaketa eta teknologia berrien erabilera (Broers, 2016: 13). Borroka eskalari dagokionez, ohikoak diren infanteria arinaren, ibilgailu blindatu eta abiazioaren arteko lankidetzak izan ziren erabilienak baina desberdintasuna markatu zuen osagaia, 1994tik lehen aldiz eman zen GRAD misilen erabilera izan zen, honek erakusten duelarik lau egun horietan zehar emandako konfrontamenduak azken urteetakoak baino askoz ere gogorragoak izan zirela. Lurralde aldaketan kontrolari dagokionez ere, desberdintasuna markatu zuena 1994tik eman ez zen gertakizun bat izan zen, Armenia eta Azerbaijanen arteko eremu baten konkista. Honi dagokionez desberdinak dira herrialde bakoitzak eman zituen datuak. Armeniak onartu zuen arren ordura arte kontrolpean zuen lurraldearen zati bat galdu zuela, esan zuen eremu hori 800 hektareakoa besterik ez zela izan. Azerbaijanek berriz, bereganatutako eremu hori askoz ere handiagoa izan zela esan zuen, 2.000 hektareakoa hain zuzen ere. Honek era berean, kolpe psikologiko handia eragin zuen Armeniar eta Karabajiar gizartean, ordura arte bizirik zirauen LOCaren iragazgaitasunaren ideia ematen zuen segurtasun sententzia desagertu baitzen.

Azkenik, teknologia berrien erabilera aipatu beharra dago, honi dagokionez herrialde bakoitza alde desberdin batean zentratu zelarik. Azerbaijani dagokionez dronen erabilerak suposatu zuen teknologia berrien sarrera gatazka honetan, honek aurretiko nagusitasun handia eskaintzen ziolarik. Armenia berriz, teknologia berrien arloan gerra informatikoan zentratu zen, azeriar webgune ofizialen “*hackeo*” eta sare sozial desberdinetan kontu faltsuak sortuz, hauetatik gizarte azeriarrean eragiteko berri faltsuak zabalduz. 2016ko gerra labur honek argi eta garbi erakutsi zuena baina, gatazka honetan dominatzailearen papera Armeniarena izatetik Azerbaijanena izatera pasatu izana da, hurrengo urteetan areagotu eta frogatu dena (Broers, 2016: 15-16).

### 5.3 2020ko azeriar erasoak

Gaurkoz gatazka honetan eman den azken inflexio puntua baina 2020ko irailaren 27an hasi zen bi herrialdeen arteko gerra irekia izan zen, azken urteetan eman den LOCean zeharreko erasoetan ez bezala oraingoan askoz ere eraso irmoagoak izan dituenak defentsa lerro hori gaindituz (Kramer, 2020). 2016an gertatu bezala baina, ez da ezustean gertatutako zerbait, udan eta udazkenean zehar eman diren eta tentsio igoera argia erakusten duten zenbait gertakarik, fase beliko berri baten etorrera aurreikusteko aukera eman baitute (Castro Torres, 2020: 4). Lau urte lehenago gertatu bezala, bi herrialdeek besteari leporatzen diote erasoekin hasi izana, baina badirudi oraingo honetan erasoak Azerbaijanek aurretiaz prestatua zuela. Hau horrela izanik, irailaren 27aren aurretik LOCean zehar emandako borroka txikiak errekonozimendu borroka bezala ulertu beharko lirateke, armada azeriarrak defentsa lerroaren puntu ahulak identifikatzeko helburuarekin gauzatutakoak.


Alde militarraz gain baina, izan dira mugimendu diplomatikoak ere erasoak azeriarrak aurretiaz prestatu izan dutela pentsarazten digutenak, esaterako Azerbaijaneko Aliyev presidenteak aurreko egunetan eginiko adierazpenak, non argi eta garbi esan zuen bakea 30 urtez luzatutako okupazioaren amaierarekin bakarrik lor zitekeela<sup>13</sup> (Anadolu Agency, 2020ko irailaren 25a). Hau ulertzekoa da kontuan hartzen baldin badugu herrialde bakoitzak momentu honetan zituen helburuak zeintzuk diren. Armeniak bere menpe dauden lurraldeen gaineko kontrola eta Nagorno Karabajen independentzia mantendu nahi dituen bitartean, Azerbaijanek 1994an galdutako lurraldeak bereganatu nahi baititu, honek paper protagonista bat hartzera behartzen duelarik (Gonzalez, 2021). 2016ko lau eguneko gerran bezala, azeriarrak Nagorno Karabajeko ipar-ekialde eta hegoaldean zentratu zituzten beraien erasoak, eremu hau lauagoa den hienean lurra berreskuratzeko erraztasun handiagoak ematen baititu erdialdeko zonalde menditsuarekin konparatuz (Setien, 2020: 9).

Lehen 15 egunetan, Stepanakert hiriburua izan zen gehien sufritu zuena, azeriarrak eginiko artilleria bonbardaketak oso populaturiko hainbat eraikin suntsitu baitzituen. Hala ere izan ziren kalteak jasan zituzten beste hainbat hiri ere, besteak beste Tartar eta Ganyá, gatazka eremutik kanpo dauden bi hiri azeriar. Tentsio egoera hau

---

<sup>13</sup> Hemen egindako adierazpenak: <https://www.aa.com.tr/en/azerbaijan-front-line/peace-can-only-be-achieved-by-ending-occupation-aliyev/1984967>

ikusita OSCEk irtenbide bat bilatzeko Errusiar Federazio, Armenia eta Azerbaijanen kanpo ministroekin bilera bat egitea proposatu zuen, arrazoi humanitarioengatik su eten bat egiteko eta hala egin zen<sup>14</sup> (OSCE, 2020ko urriaren 14a). Hala ere bi aldeetako batek ere ez zuen su etena errespetatua eta hurrengo egunean berriro ere hasi ziren enfrentamenduak. Urriaren erdialderako Azerbaijanek jada hegoaldeko zenbait eskualde bereganatzea lortu zuen Hadrut-eraino helduz.



Urriko bigarren hamabostaldian egoerak joera berdina jarraitu zuen eta Azerbaijan gero eta gehiago barneratu zen Nagorno Karabajen Martaker, Martuni eta Hadrut hirien gaineko eraso jarraituen bidez. Armeniak bere aldetik gatazka eremutik kanpo zeuden hiri azeriarrak erasotzen jarraitu zuen. Tarte honetan ere eman ziren beste bi su eten, lehenengoa urriaren 18an sartu zena indarrean<sup>15</sup> (OSCE, 2020ko urriaren 22a) eta bestea urriaren 26an<sup>16</sup> (OSCE, 2020ko urriaren 29a) baina ez zuen ezertarako balio izan bietako batek ere ez, hurrengo egunean bi aldeek apurtu baitzuten. Azaroaren

<sup>14</sup> Hemen dokumentu ofiziala: <https://www.osce.org/files/f/documents/9/5/471801.pdf>

<sup>15</sup> Hemen dokumentu ofiziala: <https://www.osce.org/files/f/documents/9/0/474872.pdf>

<sup>16</sup> Hemen dokumentu ofiziala: <https://www.osce.org/files/f/documents/b/1/474887.pdf>

hasierarako jada bistakoa zen azeriar ofentsiba geldiezia egiten ari zitzaiola Artsaj eta Armeniako armadari, azaroaren 8rako Nagorno Karabajeko barnealdeko zonalde menditsuetara heldu baitziren eta Shusha eta inguruko herriak hartu, Stepanakert hiriburutik 15km eskasera. Hain larria zen egoera Armeniarentzat hurrengo egunean, azaroak 9, Nikol Pashinyan lehen ministro armeniarrek gaueko 22:48etan bere Facebookeko kontutik jakinarazi zuela gerraren bilakaeraren ondorioz Errusiar Federazioko eta Azerbaijaneko presidentekin batera, Valdimir Putin eta Ilham Aliyev hurrenez hurren, bake akordio oso mingarri bat sinatu behar izan zuela<sup>17</sup>.

44 egunetan zehar luzatu den gerra honek 10.000 hildako baino gehiago eragin ditu eta milaka pertsonak beraien bizilekua utzi eta beste leku batzuetara alde egitera behartu ditu (Gonzalez, 2021). Hala ere, esan beharra dago Armenia eta Azerbaijanen arteko gatazkaren krudeltze honek ez duela nazioarteko komunikabideetan maila honetako gatazka batetik espero den besteko oihartzuna izan. Alde batetik, mundua Covid-19aren pandemian murgildurik egoteak eta hori dela eta herrialde guztiak arazo honi irtenbidea bilatzen buru-belarri ibiltzeak, eta bestetik azaroaren hasieran Amerikako Estatu Batuetako presidentetzarako hauteskundera izateak, berri hau oharkabean pasatzea eragin du. Honek Azerbaijani fabore egin dio Armeniaren kaltetan, herrialde batek ere ez duelako gatazka gelditzeko benetako saiakera sendorik egin.

## 6 Egoera gaur egun

2020ko azaroaren 10ean indarrean sartu zen bake akordioan erabaki zenaren arabera (Президент России, 2020), Errusiak hurrengo 5 urteetan zehar bakea mantendu dadin bere indar militarren presentzia mantenduko du Lachineko korridore eta LOCean zehar, 1.960 soldadu, 90 ibilgailu blindatu eta 380 unitate mugikorrez osatuta egongo dena. Horretaz gain, Armeniak 1994an Azerbaijani kendutako lurak itzuli beharko dizkio, honek Artsajeko errepublikari 2017an sortu zenetik mantendu zituen lur guztien %70aren galera suposatzen diolarik. Gerran zehar eginiko presoen trukea, eta gerraren ondorioz beraien bizilekua utzi behar izan duten pertsonen itzulera ere bermatuko dira. Gainera, Armenia eta Nagorno Karabaj fisikoki elkartuko dituen Lachineko

---

<sup>17</sup> Hemen Nikol Pashinyan-en adierazpen osoa:  
<https://www.facebook.com/nikol.pashinyan/posts/2807204759599901>

korridorearen segurtasuna bermatuko da, baita Azerbaijan Najhichevaneko Errepublika Autonomoarekin batuko duen bidea ere.

Momentu honetan Nagorno Karabajen dagoen egoera politikoa nahiko konplexua da, Artsajeko Errepublikaren egoera goitik behera aldatu delako. Lurralde aldaketa berriekin Armeniaren kontakto zuzena galtzeak, Errusiaren erabateko dependentzia sortu dio Artsaji, beti izan duen arren orain inoiz baino gehiago, eta alde horretatik zonaldearen segurtasunaz arduratuko diren bake soldaduak errusiarrak izateak lasaitasuna eman die. Dena den, ikusi beharko da datozen hilabeteetan ze eboluzio biziko duen orain arte izan duten autonomia ia oso horrek, dependentzia horrek aldaketak eragin ditzazkeelako. Gainera, kontuan hartu beharra dago Stepanakert eta Erevanen arteko harremanak asko hoztu direla gerra bukatu zenetik. Historikoki gaur egun Artsajeko Errepublika den a beti izan da Armenia baino askoz Errusia zalegoa, eta horregatik Errusiak gerra honetan parte hartze aktiboagoa ez hartu izanaren errua Armeniari botatzen diote, hauek mendebaldera hurbildu nahi izatea leporatuta. Gainera, Pashynian da Nagorno Karabajekoa ez den armeniar lehen presidentea eta Armeniak gerran jarrera bigunagoa izatearen arrazoia hori dela leporatzen diote.



7. Irudia: 2020ko azaroaren 9an sinaturiko bake akordioaren ondoren, Artsajeko Errepublikak ordura arte kontrolatzen zuen lurraldearen %70aren galera erakusten duen mapa. Iturria: Gonzalez, 2021

Azerbaijani dagokionez, bere helburu ia guztiak lortu ditu, Nagorno Karabaj inguratzen zuten okupatutako lurralde guztiak berreskuratzeaz gain, honen zati bat ere bereganatu baitu, baita zenbait kokaleku estrategiko ere beraien artean Gadrut eta Susha, azken honek Stepanakert hiriburua kontrolatzeko posizio estrategiko oso on batean kokatzen duelarik Azerbaijan. Gainera, bere aliatua den Turkiarekin kontaktu zuzena izatea lortu du Najichevan Azerbaijanekin konektatzen duen hegoaldeko pasabidea zabaltzea lortu izanari esker. Hala ere, alde honetatik garaipena ez da hain handia izan, pasabide hau errusiar indarrek kontrolatua egongo baita bake akordioak dioen bezala, eta honek bere nahiak oztopa baiditzake, baita Turkiarenak ere. Aipatzeko oso garrantzitsua den beste arlo bat, zibilek bizi duten egoerarena da. Gerrak eragindako kalteak direla eta milaka eta milaka pertsonak beraien etxeetatik alde egin behar izan dute eta zeukaten gutzia galdu dute. Gainera, eta bake akordioan puntuetako bat izan arren, jatorri armeniarreko bizilagunei ez zaie beraien Azerbaijanen eskuetan geratu diren lurretan dauden beraien etxebizitzetara itzultzen usten ari. Honen aurrean gainera nazioarteko komunitateak erreakziorik ez izateak egoera lazgarrian usten ditu pertsona hauek, inolako irtenbiderik gabe.

2020ko gerraren ondoren irabaziak izan dituen herrialde bakarra baina ez da Azerbaijan izan, Errusia eta Turkiak ere lortu dutelako pastelaren zati bat. Gatazkan hartutako esku-hartzearekin alderatuz hoberen irten dena dudarik gabe Errusia izan da, gerran zuzenean parte hartu gabe zonaldearen segurtasuna bermatuko duten bake indarrak bere soladuak izateak, Kaukasoan influentzia handia lortzea eragingo baitio. Gainera Bai Lachineko eta bai Najichevan Azerbaijanekin lotzen dituen pasabideen arteko kontrola bere gain izateak bai Turkiak eta bai Azerbaijanek bertan egin nahi dutenaren gaineko kontrola ematen dio Errusiari. Turkiari dagokionez, ez dago dudarik Errusiak baino askoz ere gehiago jarri duela jokoan gerra honetan, Azerbaijaneri erakutsitako baldintza gabeko aliantza hori dela eta, laguntza militarra, logistikoa... eman dizkiolako. Eraitza baina besteakoa izan da irabaziak askoz ere txikiagoak izan direlako. Horren adibide da esaterako zonaldean inolako influentzia militarra irabazi ez izana, alde batetik segurtasuna bermatzeko indarrak errusiarrek direlako eta bestetik ez duelako azeriar lurretan base militarrek ezartzeko inolako akordiorik lortu. Gainera Turkiaren helburu handienetako bat zen zonaldeko gainontzeko herrialde turkiarrekin batuko zituen pasabidea, Najichevan eta Azerbaijan batzen dituen, ez da bere kontrolpean egongo errusiarrean baizik (Gonzalez, 2021).

Beraz, gerraren fase aktibo berri hau gelditu baldin bada ere, aurreko bi kasuetan gertatu den bezala ez da gatazkaren amaiera ekarri duen behin-betiko akordio baten sinadura bati esker izan, eta horregatik gatazkaren oinarrian aurkitzen den problematikak bere baitan jarraitzen du. Honek beraz, Nagorno Karabajeko gatazkaren amaiera ekarri baino berriro ere izoztea eragin du, edozein momentutan berraktibatzeke aukera duena.

## 7 Bakea lortzea posible al da?

Azaroan bake akordioa sinatu zen arren baina, gatazka berriro ere izoztu dela esan daiteke baina ez konpondu, Nikol Pashinyanek eginiko bake akordioaren sinatzearen adierazpenaren ondoren Armenian akordio honen eta baita lehen ministroaren aurka egin diren protestek erakutsi duten bezala<sup>18</sup> (Naiz, 2020ko azaroaren 10a). Beraz, konpontzeko hain zaila den gatazka honek bizirik jarraituko duela ematen du, eta honi irtenbide bat aurkitzeaz arduratuko diren protagonista berrien beharra dagoela ere argi geratu da. Oso interesgarria da esaterako OSCEk sortutako Minskeko taldearen kasua.

1992an OSCEk talde hau sortu zuen Armenia eta Azerbaijanen artean piztu zen Nagorno Karabajen inguruko gatazkari irtenbide bat aurkitzeko helburuarekin. Talde hau lehendakari-kidetza batez osaturik dago, zeinean Errusiak, Ameriketako Estatu Batuek eta Frantziak hartzen duten parte. Hala ere, eta hiru herrialde hauek gatazkaren eremuan interesak dituztela kontuan harturik, taldearen neutraltasun, gardentasun eta oreka mantentzeko beste hainbat herrialdek ere hartzen dute parte talde honetan: Bielorrusia, Alemania, Italia, Suedia, Finlandia, Turkia eta nola ez Armenia eta AzerbaijanEK ere bai (OSCE, d.g).

1994tik bake iraunkorra lortzeko saiakera ugari egin dituzte eta beraiei zor zaie esaterako 1994ko su etena ekarri zuen Bishkekeko protokoloa. Ordutik aurrera ere benetako irtenbide bat bilatzen saiatu da taldea eta beraien lorpen handiena Armenia eta Azerbaijaneko presidenteeekin 2007an Madrileko printzipioak bezala ezagutzen diren 6 neurrien onarpena izan zen. Lehendakari-kidetza osatzen duten hiru herrialdeek printzipio hauek betetzeko beharra aldarrikatu dituzte era bateratuan G8aren baitan 2009

---

<sup>18</sup> Hemen artikulua osoa: <https://www.naiz.eus/eu/info/noticia/20201110/la-policia-armenia-retoma-el-control-tras-el-asalto-popular-a-la-sede-del-gobierno-y-del-parlamento>



eta 2010ean egindako L'Aquila eta Moskuko bileretan, baita 2010ean Astanan egindako OSCEren goi-bileran ere. Ondorengoak dira 6 neurri horiek(Ruiz Gonzalez, 2011: 100):

- Nagorno Karabaj inguratzen duten Armeniak 1994an okupatutako 7 lurraldeak Azerbaijani itzultzea
- Nagorno Karabaji segurtasuna eta autodeterminazioa ziurtatzen dion behin-behineko estatus baten onarpena.
- Armenia eta Nagorno Karabaj fisikoki lotuko dituen korridore baten ezarpena (Lachin hiritik zehar)
- Etorkizunean lurralde horren estatusa determinatuko duen juridikoki balizkoa izango den erreferendum bat egitea
- Errefuxiatu eta gerraren ondorioz lekualdatu behar izan diren pertsonen beraien bizilekuetara itzultzeko eskubidea onartzea
- Nazioarteko segurtasun bermea, bake indarren erabileraren bidez.

Bi herrialdeek neurri hauek betetzeko akordioa aldarrikatu duten arren, errealitatean ez Armeniak ezta Azerbaijanek ere ez dute borondate osoa erakutsi bakoitzak bere interesak lehenetsi dituelako. Armeniarrek puntu guztiak batera gauzatzea nahi duten bitartean, azeriarrek diote lehen puntua betetzen ez den bitartean (7 lurralde okupatuen itzulera) ez daudela negoziatzeko prest, honek berriro ere irtenbide bat aurkitzea ezinezko egiten duelarik. Hori dela eta, argi eta garbi ikusi da 2011 geroztik Minsk taldeak benetan baliogarria izateari utzi diola (Gonzalez, 2021) eta negoziaketa prozesuen blokeo bat eman dela, zeina 2016an gerra berpizteko arrazoietako bat izan zen, eta are gehiago 2020ko gerraren ondoren emandako lurralde aldaketek Madrileko printzipioak baliogabetu dituenetik. Horregatik, diplomatikoki bake akordio iraunkor bat lortzeko gaitasuna erreala duen protagonista bakarra Errusia dela esan daiteke. 2016an eta 2020an erakutsi duen bezala, bera izan da gatazka geratzeko gaitasuna izan duen herrialde bakarra eta honek Kaukasoko geopolitikan botere handia ematen dio, horri esker etorkizunean egingo dituen esku-hartzeak bere interes nazionalen araberakoak izango direlarik.

## 8 Atzerriko potentzien jarrera eta interesak

### 8.1 Errusiar Federazioa

Aurretik esan bezala, Errusiak du protagonismo handiena zonalde honetan eta gatazka berpiztu zenetik erakutsi duen bezala bera da gatazkak jarrai dezan edo bake akordio bat sinatua izan dadin erabakitzeke boterea duen herrialde nagusia. Bai Armeniarekin eta bai Azerbaijanekin akordioak izanik, azken honekin duen harremana azken urteetan hobetuz joan delarik, neutraltasun itxura bat eman nahi izan du baina egia esan zonalde honetan gatazkak bizirik jarraitzea ez da emaitza txarra Errusiarentzat, honek zonaldean sortzen duen ezegonkortasunak, mendebaldeko enpresek bertan izan ditzaketen interesak albo batera ustea eragiten baitu. *Status quo* orain arte egon den bezala mantentzearen aldeko jarrera hori argi eta garbi ikus daiteke bi aldeetako gudarosteei arma gehien saldu dizkien herrialdea Errusia dela kontuan hartzen baldin bada (Alesso, 2019: 31). Hala ere herrialde bakoitzarekin duen harremana guztiz desberdina dela argi eta garbi utzi beharra dago.

Armeniarekin 1992tik “*Organizacion de Tratado de la Seguridad Colectiva*”<sup>19</sup>-ren (OTSC) parte da eta horren arabera akordio honen parte den edozein herrialdek beste herrialderen baten eraso jasanez gero denek babestu beharko lukete erasotua izan den kidea. Hau Armeniarentzat oso akordio baliogarria izan zen bai Azerbaijan eta bai Turkiaren erasoetatik babesten baitzuen. Gainera, bien arteko harremana oso sendoa izaten jarraitzen duela argi eta garbi geratu zen 2010ean Errusiak Armenian duen Gyumrineko 102. Base militarren gaineko akordioa 2044rarte luzatzea erabaki zutenean (Peña-Ramos, 2018: 233). Armeniak Errusia gatazkan sartu nahi izan du OTSCko kideak direla eta akordiotik kanpoko herrialde batek, Azerbaijanek, bere aurkako eraso bat egin duela argudiatuz, baina Errusiak argi eta garbi adierazi du berak akordioak dioena beteko duela beti ere Armeniako lurak direnean erasotuak direnak, Nagorno Karabaj akordiotik kanpo utziz. Eraso honen aurrean Errusiak erakutsi duen neutraltasun edo pasibotasuna baina, Armeniak azken urte hauetan Europara hurbiltzeko egin dituen saiakeren ondorio bezala ere kontsidera daitezke.

---

<sup>19</sup> OTSC siglekin ezagutuagoa, eta SESBeko kide ohiak diren Armenia, Bielorrusia, Kazakstan, Kirgistan, Errusia eta Tayikistanek osatzen dutena. Informazio gehiago: <https://en.odkb-csto.org/>

Jarrera honek erakusten duen beste gauzetako bat Moskuk Bakurekin harreman onak mantentzeko dituen interesak dira. Lotura hori baina Armeniarekin duenaren oso bestelakoa da, kultural edo erlijiosoa izan ordez erabat ekonomikoa baita. Errusiak Kaukasoon duen hidrokarburoen joko geostrategikoan Azerbaijan oso aktore garrantzitsua da. Historikoki Europa gas eta petrolioz hornitu duen hidrokarburo hauen iturri nagusia Errusia izan da, Ukraina zeharkatuz egin duena, eta honek botere handia eman dio. Azerbaijan azken urteetan bere petrolio-hobietatik gero eta petrolio gehiago ateratzen hasi izanak baina, Europari Errusiarekiko dependentzia hori leuntzeko aukera bat zabaldu dio, hau ez zaiolarik Moskuri bat ere ez gustatu. Hau argi eta garbi ikusi zen 2013an esaterako, non Errusiak eginiko presioaren ondorioz Azerbaijanek Europara gasa garraiatzeko “*Trans Adriatic Pipeline*” (TAP) aukeratzea erabaki zuen, nahiz eta hasiera batean Europak bultzaturiko “*Nabucco*” proiektuaren alde agertu. Gauza da Azerbaijanek Errusian dituen interesak direla eta, TAPa erabiltzea erabaki zela honek ez zielako gasa ematen Errusiarekiko dependentzia handia zuten herrialde europarrei.

Bakurekiko harreman onak mantentzeko ideia hori beraz, hidrokarburoen jokoaren ondorio izan daiteke, baita azken gerra honetan Armeniari baldintza-gabeko babesa ez erakustearen arrazoia ere. Gainera, Azerbaijanekin harreman onak izateak hau bere politiketara hurbildu eta Iranek Kaukasoon izan dezakeen eragina gelditu eta Turkiarengana hurbiltzen ez jarraitzea ere eragin dezake, honek zonaldean bere posizioa indartzea eragin dezakeelarik.

## 8.2 *Turkia*

Errusia albo batera utzita, Kaukasoko potentzia handiena Turkia dela esan daiteke, eta oso kontuan edukitzekoa azken urteetan Erdogan presidenteak hartutako jarrera oldarkorra kontuan hartuta. Nagorno Karabajeko gatazkari dagokionez, Armeniaren aliatu historiko nagusia Errusia izan den bezala, Turkiak Azerbaijanen aliatu nagusiaren papera bete du, baina lehenengoak ez bezala konpromiso hau publikoki eta modu askoz ere zuzenago batean betez. Hau erabat ulerkorra da Azerbaijanen independentziaz biek jarraitzen duten “nazio bat, bi estatu” politikaren baitan (Castro Torres, 2020: 13).

Bi herrialdeen arteko anaitasun harremanaz gain baina, bien arteko aliantza askoz ere sendoagoa egin zen 2010eko abuztuaren 16an sinatutako “*Acuerdo de Asociacion*

*Estrategica y Ayuda Mutua*” akordioaren bidez, zeinaren arabera bi herrialdeetako bat erasotua baldin bada besteak bere indar guztiekin lagundu behar duen<sup>20</sup> (Göksedef, 2020ko urriaren 2a). Akordio honi esker era berean, Azerbaijanek bere gaitasun militarra garatzeko hain beharrezkoak dituen armak Turkiari erosteko aukera lortu zuen, Turkiak era berean bere lurretatik lortu ezin dituen baliabide energetikoak Azerbaijanen eskutik lortuko dituela ziurtatzen zuen bitartean.

Bi herrialde musulman hauen arteko harremana dela eta, Turkiak ez du inolako traturik Armeniarekin, lan honen hasieran aipatutako 1915ean Otomandar Inperioak gauzatutako genozidioaren onarpen ezak ere bi herrialde hauen arteko harremana ezinekoa egiten duelarik. Hala ere, hau ez da beti horrela izan, XXI. Mendearen hasieran bi herrialde hauen arteko normalizaziora bideraturiko bilera batzuk egin baitziren, eta hauetatik Zurich-eko akordioa sinatzea lortu zen 2009an, zeinetan Turkiak Armeniaren mugetan egiten zuen blokeoa alde batera utziko zuela adierazi zuen<sup>21</sup> (El Pais, 2009ko urriaren 10a). Hala ere, Azerbaijanek egindako presioen ondorioz akordio honek ez zuen benetako eraginik izan eta 2018an bertan behera geratu ziren bertan hartutako erabakiak.

Hala ere, Turkia benetan gatazka honetako aktore nagusienetako bat bihurtzen duen faktorea bere posizio geografikoak Europara hidrokarburoak garraiatzeko ematen duen posizio geostrategikoa da. Hidrokarburoen garraioko trantsitu herrialde izaera horrek gainera Europan politikoki eragiteko beste arma bat ematen dio Turkiari, gaur egun arte errefuxiatuentzako egiten duen tapoi funtzioak ematen dion botereaz gain (Cabello Rodriguez, 2017: 100). Ideia honek gainera indarra hartuz joan da Errusia eta Ukrainaren arteko harremana gaiztotuz joan den heinean. Orain dela gutxira arte Errusiak bere hidrokarburoak Europara garraiatzeko erabilitako bide nagusia Ukrainatik igarotzen den azpiegituren bitartez egin du baina bi herrialdeen arteko tentsio igoera dela eta 2019an bukatzen zen akordio hau hasieran ez berritzeko ideia zela eta Errusiak bere energiari beste irtenbide bat aurkitzen saiatu zen.

Hor kokatzen ditugu herrialde honek Turkiarekin eginiko TurkStream gasoduktua eraikitzeko akordioak<sup>22</sup> (BBC, 2020 urtarrilaren 11). Honi esker Errusiak Europara gasa garraiatzeko beste bide bat lortu du eta Turkiak gasa eskuratzeaz gain Europara bidean

---

<sup>20</sup> Hemen artikulua osoa: <https://www.bbc.com/turkce/haberler-turkiye-54379105>


<sup>21</sup> Hemen artikulua osoa: [https://elpais.com/internacional/2009/10/10/actualidad/1255125613\\_850215.html](https://elpais.com/internacional/2009/10/10/actualidad/1255125613_850215.html)

<sup>22</sup> Hemen artikulua osoa: <https://www.bbc.com/mundo/noticias-internacional-51048964>

doan gasarentzako trantsitu herrialde bihurtzen da, honek irabazi ekonomiko handiak ematen dizkiolarik, izan ere hemendik garraiatuko den gasaren zati bat Europara joango baita.



Turkiak baina, Errusiarekiko dependentsian ez jausteko beste proiektu batzuk ere baditu, garrantzitsuena “*Trans-Anatolian gas Pipeline*” (TANAP) delarik. Honi esker, Kaspiar Itsasoko putzuetatik hidrokarburoak zuzenean Turkiara eta ondoren Europara bidaltzeko aukera ematen baitio, horretarako “*South Caucasus Pipeline*”, BTE bezala ere ezagutua Baku, Tiblis eta Erzurum batzen dituelako, eta aurretik aipaturiko TAP gasoduktuak konektatuko dituelarik. Honek beraz bi abantaila ematen dizkio Turkiari, bata bere hidrokarburoen beharra asetzea eta gainera Errusiarekiko dependentsia gutxitzea Azerbaijaneko gasari esker, eta bestea aurretik aipaturiko bi proiektuei esker European politikoki eragiteko trantsituko herrialde bihurtzea, honek emango dizkion irabazi ekonomikoez gain (Cabello Rodriguez, 2017: 100).



### 8.3 Beste potentzia batzuk

Errusia eta Turkiatz gain baina badira zonalde honetan interesak dituzten beste herrialde batzuk eta gatazka honen inguruan interesak dituztenak. Hauetako bat Iran da, zeinak aurreko biek besteko protagonismoa izan ez arren Kaukasoko potentzietako bat izaten jarraitzen duen. Hala ere, Iranen postura egoera nahiko berezia da interes kontrajarriak dituelako. Alde batetik Azerbaijanen integritate territorialaren defentsaren alde agertzen da, arlo erlijiosotik hau bere interesekoa delako kontuan hartu behar baita biak direla gehiengo xhiita duten herrialde musulmanak, eta horregatik Armenia publikoki babesteak barne arazoak sor diezazkio. Errealitatean baina, argi geratu da gerra guztietan Armenia lagundu izan duela bai 90eko hamarkadako gerran eta baita 2020koan ere laguntza Errusiara bertatik heldu baita, kontuan hartu behar dela Georgiak ez diola Errusiari bertatik pasatzen usten Armenia laguntzen joateko. Hau logika geostrategiko baten ulertu behar da, Armenia laguntzea Turkiaren aurka egitea baita eta Irani ez zaiolako interesatzen zonalde honetan Turkiak irabaziak izan eta influentzia irabaztea.

Zonalde honetan interesak dituzten beste aktore bat Europar Batasuna da eta honekin batera OSCE bera. Frantzia eta Alemania izan dira mugimendu diplomatiko serioak egin dituzten herrialde europar bakarrak, lehenengoak bere lurretan bizi den diaspora armeniar handiaren presioaren ondorioz eta bigarrenak batasuneko lider

ekonomikoa izatearen erantzun bezala. Dena den esan daiteke nahiko desagertuak egon direla 2020ko gerra honetan, eta beraien posizioa OSCEren Minsk taldeko Frantziar ordezkartzaren esku utzi dutela. Honi dagokionez lan osoan zehar aipatu den bezala 1994tik oso garrantzitsua izan da bere esku-hartzea gatazka honetan, bere momentu garrantzitsuena Madrileko printzipioetan erabakitako puntuak bi aldeek onartzea izan zelarik. Hala ere, onartu beharra dago 2010etik aurrera bere gatazka honetan benetan eragiteko ahalmena gutxituz joan dela, eta hori argi eta garbi ikusi da 2016 eta 2020ko gatazken amaiera ekarri duten akordioetan izan duen parte hartze txikian, ikusi delarik arlo honetan benetan boterea duena Errusiar Federazioa dela.

## 9 Ondorioak

Lan honetan zehar ikusi denarekin beraz, argi eta garbi geratu da milurteko historia duen gatazka honek bere baitan jarraitzen duela, bake akordio bat sinatu den arren arazoaren beretako erroari ez diolako irtenbiderik aurkitu. Honek beraz XXI. mendean oraindik pizturik jarraitzen duen gatazka honek horrela jarraituko duela ematen du, lo egoeran baldin bada ere, aurreko urtean gertatu bezala berriro pizteko aukera dagoenean sarraski berri bat eraginez. Hala ere, 1991 eta 1994arteko gerratik ondorio garrantzitsuenak izan dituen inflexio puntua izan dela argi eta garbi geratu da, borroka txikiak inoiz ere gelditu ez diren arren, batek ere ez duelako horrelako egoeraren aldaketa bat eragin. Hidrokarburoen salmentari esker lortutako irabaziek Azerbaijani emandako botere militarri eta bere aliatuen esku-hartze aktiboari esker, Artsajeko Errepublikaren eskuetan zeuden bere lurralde okupatuak berreskuratzea lortu du baita honi bere lurraldearen zati bat kentzea ere. Honek 2016an jada ikustarazi zuen azeriarren nagusigoa erreala dela erakutsi du, 90eko hamarkadako egoerari buelta osoa emanez.

2020ko irailean hasi eta azaroan bukatutako gerrak gainera, Kaukasoko zonaldearen egoera geopolitikoan ere aldaketak eragin ditu. Onuradun nagusiak dudarik gabe Errusia eta Turkia izan dira, nahiz eta gerran zehar jokoan jarri dutenarekin konparatuz lehenengoarena izan den garaipen handiena. Gerran zehar jarrera irmo bat hartu gabe Errusiak Kaukasoon eragina izateko baldintzak lortu ditu, segurtasuna bermatuko duten indarrak bereak izango baitira eta gainera klabeak izango diren pasabideak, Lachinekoa eta Najichevan Azerbaijanekin lotuko duena, bere kontrolpean

egongo direlako. Turkiak aldiz gerran inbertsio handiak egin arren, material, logistika eta soldaduz osatutakoa, eta zituen helburu militarrek lortu dituen arren, Azerbaijanek gerra irabaztea, honen ondoren geratu den panoraman ez du irabazi handirik izan egia esan, zonaldean eragin handiena izateko baldintzak Errusiak eskuratu dituelako. Honetaz gain, argi eta garbi geratu da bake prozesuak abiarazteko egon diren nazioarteko tresnek, OSCEko Minsk taldea kasu, inolako baliagarritasunik ez dutela erakutsi dute eta argi eta garbi geratu da Errusiak duela arlo honetan eragiteko indarra edo posizioa duen herrialde bakarra.



## 10 Gatazkaren kronologia

- **1915:** Armeniar genozidioaren hasiera
- **1918:** Transkaukasiako Errepublika demokratikoaren sorrera
  - Hilabete batzuk beranduago disoluzioa eta Armenia, Azerbaijan eta Georgiaren agerpena
- **1919:** Armenia eta Azerbaijanen arteko gerra Nagorno Karabajengatik
- **1920:** Armada Gorriaren Bakuren konkista armeniar laguntzarekin
- **1921:** Leninek erabaki Nagorno Karabaj eta Najichevan Azerbaijanen eskuetan geratzea
- **1936:** Transkaukasioako Errepublika Sozialista Federazio Sobietarra, hiru errepubliketan banatu
- **1985:** Glasnot eta Perestroika indarrean sartu
- **1988:** Nagorno Karabajek Azerbaijanetik banatzeko eskaera egin
  - Sumgaiteko pogromoa
- **1990:** Bakuko urtarril beltza
- **1991:** “*Operation Ring*”, gerraren hasiera
- **1991:** Azerbaijanen independentzia deklarazioa abuztuan
  - Armeniaren independentzia deklarazioa irailean
- **1992:** Nagorno Karabajek independentzia deklarazioa urtarrilean
  - Azeriar ofentsiba urtarrilean
  - Armeniar kontraerasoa
- **1994:** Biskhekeko protokoloa, gerraren amaiera
- **2007:** Madrilgo printzipioak
- **2016:** Lau eguneko gerra
- **2017:** Artsajeko Errepublikaren izendapena
- **2020:** Iraileko azeriar ofentsiba
  - Azaroan bake akordioa

# 11 Iturriak

## 11.1 Bibliografia

- Alesso, N. M. (2019). Post Guerra Fría inconclusa: el caso de Nagorno Karabaj. El conflicto armenio-azerí y posición e intereses de Rusia, Turquía e Irán en la región. *Cuadernos de Política Exterior Argentina (Nueva Época)*, 129: 21-39.
- Mkrtichyan, A. (2009). El derecho de autodeterminación a la luz de los conflictos territoriales en Europa: el caso de Nagorno Karabaj. *Anuario de Facultad de Derecho da Universidade da Coruña (AFDUDC)*, 13: 431-445.
- Peña-Ramos, J. A. (2018). La estrategia rusa de poder entre los mares negro y caspio: El conflicto de Nagorno-Karabaj en el Caucaso sur. *Revista general de marina*, 227-237.
- Priego Moreno, A. (2003). Nagorno-Karabag: ¿Disputa territorial o energética? *UNISCI discussion papers*, 2: 1-43.
- Waal, T. (2003). *Black Garden*. New York-London: New York University Press.

## 11.2 Webgrafia

- Anadolu Agency. (2020ko irailaren 25a). Peace can only be achieved by ending occupation: Aliyev. Eskuratze-eguna: 2021eko maiatzaren 6a. Iturria: *Anadolu Agency*: <https://www.aa.com.tr/en/azerbaijan-front-line/peace-can-only-be-achieved-by-ending-occupation-aliyev/1984967>
- BBC. (2020ko urtarrilaren 11a). TurkStream, el ambicioso gasoducto que une a Rusia y Turquía (y por qué es estratégico para Moscú). Eskuratze-eguna: 2021eko maiatzaren 13a. Iturria: *bbc.com*: <https://www.bbc.com/mundo/noticias-internacional-51048964>
- BBC. (2021eko apirilaren 24a). El reconocimiento histórico de Joe Biden al declarar a la matanza de armenios de 1915 como un "genocidio". Eskuratze-eguna: 2021eko maiatzaren 10. Iturria: *bbc.com*: <https://www.bbc.com/mundo/noticias-internacional-56862080>

- Broers, L. (2016ko uztaila). The Nagorny Karabakh Conflict: Defaulting to War. Eskuratze-eguna: 2016ko maiatzaren 5a. Iturria: *Chatham House. The Royal Institute of International Affairs*: <https://www.chathamhouse.org/2016/07/nagorny-karabakh-conflict-defaulting-war>
- Cabello Rodriguez, J. L. (2017). El Cáucaso. *Panorama Geopolítico de los Conflictos 2017* (83-109.or). España: Ministerio de Defensa eta Instituto Español de Estudios Estratégicos. Eskuratze-eguna: 2017ko maiatzaren 1a: [http://www.ieee.es/Galerias/fichero/panoramas/Panorama\\_Geopolitico\\_Conflictos\\_2017.pdf](http://www.ieee.es/Galerias/fichero/panoramas/Panorama_Geopolitico_Conflictos_2017.pdf)
- Castro Torres, J. I. (2020ko azaroaren 4a). Nagorno Karabaj: un nudo gordiano en mitad del Cáucaso. Eskuratze-eguna: 2020ko apirilaren 27a. Iturria: *Instituto Español de Estudios Estratégicos*: [http://www.ieee.es/Galerias/fichero/docs\\_analisis/2020/DIEEEA34\\_2020JOSC\\_AS\\_Nagorno.pdf](http://www.ieee.es/Galerias/fichero/docs_analisis/2020/DIEEEA34_2020JOSC_AS_Nagorno.pdf)
- CSTO. (d.g.) Collective Security Treaty Organization. Eskuratze-eguna: 2020ko maiatzaren 12a. Iturria: *Collective Security Treaty Organization*: <https://en.odkb-csto.org/>
- EL PAIS. (1991ko abuztuaren 31a). Azerbaiyán se declara soberana y levanta el estado de emergencia. Eskuratze-eguna: 2020ko maiatzaren 9a. Iturria: *elpais.com*: [https://elpais.com/diario/1991/08/31/internacional/683589605\\_850215.html](https://elpais.com/diario/1991/08/31/internacional/683589605_850215.html)
- EL PAIS. (2010eko urriaren 10a). Armenia y Turquía ponen fin a cien años de hostilidad. Eskuratze-eguna: 2020ko maiatzaren 13a. Iturria: *elpais.com*: [https://elpais.com/internacional/2009/10/10/actualidad/1255125613\\_850215.html](https://elpais.com/internacional/2009/10/10/actualidad/1255125613_850215.html)
- Göksedef, E. (2020ko urriaren 2a). Nagorno-Karabaj: ¿Cómo jugó Turquía un papel en el desarrollo de la capacidad militar de Azerbaiyán? Eskuratze-eguna: 2020ko maiatzaren 13a. Iturria: *bbc.com*: <https://www.bbc.com/turkce/haberler-turkiye-54379105>
- Hiatt, F. (1991ko Irailaren 23a). Armenians, Azerbaijanis agree to Talks on disputed enclave. Eskuratze-eguna: 2020ko maiatzaren 5a. Iturria: *washingtonpost.com*:

<https://www.washingtonpost.com/archive/politics/1991/09/23/armenians-azerbaijanis-agree-to-talks-on-disputed-enclave/127a6164-9b30-4270-bde3-368c25dce194/>

- Kramer, A. E. (2020ko irailaren 28a). Fighting Between Armenia and Azerbaijan Risks Drawing in Bigger Powers. Eskuratze-eguna: 2021eko maiatzaren 9a. Iturria: *nytimes.com*: <https://www.nytimes.com/2020/09/28/world/asia/azerbaijan-armenia-nagorno-karabakh.html>
- NAIZ. (2020ko azaroaren 10a). La Policía armenia retoma el control tras el asalto popular a la sede del Gobierno y del Parlamento. Eskuratze-eguna: 2021eko maiatzaren 11a. Iturria: *naiz.eus*: <https://www.naiz.eus/eu/info/noticia/20201110/la-policia-armenia-retoma-el-control-tras-el-asalto-popular-a-la-sede-del-gobierno-y-del-parlamento>
- Nikhol Pashinyan (2020ko azaroaren 9a). Միրելի հայրենակիցներ, քույրեր եւ եղբայրներ. անձամբ իմ եւ բոլորիս համար ծանր, չափազանց ծանր որոշում եմ կայացրել: Ռուսաստանի եւ Ադրբեջանի նախագահների հետ դարաբաղյան պատերազմը ժամը 01.00-ից դադարեցնելու մասին հայտարարություն եմ ստորագրել: Հայտարարության տեքստը, որ արդեն հրապարակվել է, անասելի ցավոտ է անձամբ... Eskuratze-eguna: 2021eko maiatzaren 12a. Iturria: <https://m.facebook.com/nikol.pashinyan/posts/2807204759599901>
- OSCE. (1994ko maiatzak 4-5). Bishkekeko protokoloa. Eskuratze-eguna: 2021eko maiatzaren 8a. Iturria: *pacemakers.un.org*: <https://peacemaker.un.org/armeniaazerbaijan-bishkekprotocol94>
- OSCE. (2020ko urriaren 14a). 1285<sup>a</sup> SESIÓN PLENARIA DEL CONSEJO. Eskuratze-eguna: 2021eko maiatzaren 10a. Iturria: *osce.org*: <https://www.osce.org/files/f/documents/9/5/471801.pdf>
- OSCE. (2020ko urriaren 22a). 1286<sup>a</sup> SESIÓN PLENARIA DEL CONSEJO. Eskuratze-eguna: 2021eko maiatzaren 12a. Iturria: *osce.org*: <https://www.osce.org/files/f/documents/9/0/474872.pdf>
- OSCE. (2020ko urriaren 29a). 1287<sup>a</sup> SESIÓN PLENARIA DEL CONSEJO. Eskuratze-eguna: 2021eko maiatzaren 11a. Iturria: *osce.org*: <https://www.osce.org/files/f/documents/b/1/474887.pdf>

- OSCE. (d.g.). Who we are. Eskuratze-eguna: 2021ko maiatzaren 12a. Iturria: *osce.org*: <https://www.osce.org/minsk-group/108306>
- Priego Moreno, A. (2016ko ekainaren 10a). El conflicto de Nagorno Karabaj y la crisis de abril. Eskuratze-eguna: 2021eko apirilaren 21a. Iturria: *Instituto Español de Estudios Estratégicos*: [http://www.ieee.es/Galerias/fichero/docs\\_opinion/2016/DIEEEO59-2016\\_Conflicto\\_Nagorno-Karabakh\\_APriego.pdf](http://www.ieee.es/Galerias/fichero/docs_opinion/2016/DIEEEO59-2016_Conflicto_Nagorno-Karabakh_APriego.pdf)
- Putin, V., Aliyev, I., Pashynian, N. (2020ko azaroaren 10a). Declaración del Presidente de la República de Azerbaiyan, Primer Ministro de la República de Armenia y Presidente de la Federación de Ruisa. Eskuratze-eguna: 2021eko maiatzaren 12a. Iturria: *Президент России*: <http://kremlin.ru/events/president/news/64384>
- Ruiz Gonzalez, F. J. (2011). El Gran Caucaso. *Panorama Geopolítico de los Conflictos 2011*(87-108.or). España: Ministerio de Defensa eta Instituto Español de Estudios Estratégicos. Eskuratze-eguna: 2021eko apirilaren 18a: [http://www.ieee.es/Galerias/fichero/panoramas/Panorama\\_geopolitico\\_2011.pdf](http://www.ieee.es/Galerias/fichero/panoramas/Panorama_geopolitico_2011.pdf)
- Setién, S. (2020ko abenduaren 1a). Conflicto de Nagorno Karabaj 2020: ¿Nos encontramos ante la solución definitiva? Eskuratze-eguna: 2021eko otsailaren 16a. Iturria: *Instituto Español de Estudios Estratégicos*: [http://www.ieee.es/Galerias/fichero/docs\\_opinion/2020/DIEEEO154\\_2020SAR\\_SET\\_Nagorno.pdf](http://www.ieee.es/Galerias/fichero/docs_opinion/2020/DIEEEO154_2020SAR_SET_Nagorno.pdf)
- Taylor, S. (2016ko apirilaren 5a). Nagorno-Karabakh: halt in hostilities announced . Eskuratze-eguna: 2021eko maiatzaren 6a. Iturria: *euronews.com*: <https://www.euronews.com/2016/04/05/nagorno-karabakh-defence-ministry-announces-a-ceasefire-in-the-region>

### 11.3 Hitzaldiak

- Gonzalez, P. (2021eko maiatzaren 7a). *Conflictos en el Espacio postsoviético: la guerra de Nagorno-Karabaj*. EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien fakultatean emandako hitzaldia, Leioan.